

## **BILBOKO UDALAK OLABEAGA AUZOAN IRISGARRITASUNA ETA ARGITERIA HOBETZEKO OBRAK HASI DITU**

- Hainbat eskailera-tartetan jarduketak egitea aurreikusten da, hala nola Dike kalera sartzeko eskaileretan, bide horren eta Ventosa bidearen artekoetan, Trokabideko eskaileretan, Olabeaga kaiko 36 zenbakian daudenetan eta Olabeaga kaiko 22 zenbakiko atzealdean dauden eskailera metalikoetan.
- Urgozo kaleko aparkalekuan ere esku hartuko da.
- Aste honetan hasi eta sei hilabeteko epea duten lan horietara 435.321,31 euroko aurrekontua bideratuko da.
- Lan horiek Auzokide Planaren barruan daude, eta lehenetsi egin dituzte, horrenbestez, 8. barrutiko bizilagunek.

(Bilbon, 2022ko maiatzaren 16an).- **Bilboko Udalak Olabeaga auzoko hobekuntza-planaren barruan jasotako hainbat lan hasiko ditu aste honetan.** Lan horiek zenbait gunetan egingo dira, eta funtsean, ingurune horretako oinezkoentzako bideak hobetzeko dira. Lan gehienak auzoko zenbait eskailera-tartetan egingo dira.

**Guztira, sei jarduera** egingo dira hiru tokitan; lanok **435.321,31 euroko** aurrekontua dute, eta datozen **sei hilabeteetan** egingo dira.

### **DIKE KALERA SARTZEKO ESKAILERAK**

**Eskailerak eta arrapala bat daude Olabeaga kaiko espaloitik Dike kalera sartzeko,** baina dagoen barandak ez ditu betetzen irisgarritasun-parametroak, ezta desnibelak babestekoak ere.

**Baranda horren orde bestea bat jarriko da, desnibelak babestuta eta altzairu herdoilgaitzezko eskudel bikoitzaz hornitua, irisgarritasun-parametroak bete ditzan.**

Gainera, **sarbideko zoladura eta horma garbituko dira,** lirdinga eta hezetasunak sortutako kalteak daudelako. Hormaren paramentua mortero-geruza batez tratatuko da.

### **DIKE KALEAREN ETA VENTOSA BIDEAREN ARTEKO ESKAILERAK ETA PASABIDEA**

**Dike kalearen amaieran, 10 zenbakiaren parean, Ventosa bidera igotzeko eskailerak** hasten dira. Eskailera horiek pasabide baten bidez zeharkatzen dute trenbide zaharra. Oinezkoentzako ibilbide hori pasabide estua da; eskailera-mailak, itxiturak eta barandak hondatuta daude, eta argiztapena ez da nahikoa.

Eskailera-tarteak ezin izango dira zabaldu, ez baitago aski espazio publikorik. **Eskaileretan hormigoizko zoladura hobetuko da**, halere, mortero inprimatuko geruza batez, **hala eskailera-mailetan, nola eskailera-buruetan eta pasabidean**.

**Baranda guztiak eta metalezko itxitura kenduko dira**; azken horrek ez du zentzurik, pasabidearen azpian trenik ez baitabil orain. Gaur egun trenbidea ez da erabiltzen, eta ADIFek Udalari laga dio lursaila.

Goiko zatian **lorategiko zintarri bat jarriko da alboko ezpondekin mugatzeko**, eta **altzairu herdoilgaitzezko eskudel bikoitza eta babes-baranda** jarriko dira bi aldeetan, zati horren luzera osoan. Eskaileretarako sarbideetan, norabidezko baldosa gorrizko banda bat jarriko da.

Eta dagoen **luminariaren orde** **LED** sistemakoa jarriko da, bai eta **ezaugarri bereko beste argi-puntu bat ere eskaileren goiko aldean**.

## **TROKABIDEKO ESKAILERAK**

Trokabidea kaleko eskailerek bi zati dituzte: lehenak Olabeaga kaia –3 zenbakiaren parean– eta Dike kalea lotzen ditu, eta bigarrenak trenbide gaineko pasabideraino jarraitzen du. Eskailera horiek horma artean daude, eta **ez dago**, ondorioz, **handitzeko aukerarik**.

**Asmoa da eskailera horiek berriz egitea, eta haien mailen neurriak eta kopurua egokitzea, irisgarritasunari buruzko araudia bete dadin** (35x15 zentimetroko mailak, alegia). Horretarako, maila batzuk atzeraeman eta beste batzuk gehitu behar dira; eskailera-zatiak aldatuko dira, halaber, eta bere horretan utziko da Dike kalearekiko elkarguneko eskailera-burua.

**Mailak granitozkoak izango dira, eta granitozko baldosa ere jarriko da eskailera-buruetan eta elkarguneetan**. Alboko gidak kenduko dira, eta **eskudel bikoitza jarriko da eskaileren bi aldeetan**.

Era berean, **norabidezko baldosa-bandak** jarriko dira, orobat, eskaileretarako **sarbideetan**, eta **argiak, ur-sarearen zati bat eta euri-urak biltzeko sistema berrituko dira**.

## **OLABEAGA KAIKO 22KO ATZEALDEKO ESKAILEREN METALEZKO EGITURA**

Olabeaga kaiko 22ko atzealdean metalezko egitura baten gaineko eskailera batzuk daude. Eskailera horiek –goiko aldeko pasabide baten bidez– San Nikolas kalearekin lotzen dute. Haien egitura oxidatuta dago, eta errekarizko zoladura, berriz, hondatuta.

**Eskailera-mailetako eta pasabideko zoladura kendu eta granitozko baldosa jarriko da**; horrez gain, **metalezko egitura saneatu eta konponduko da**. Egitura hori zutabeen

**bidez indartuko da**, eta goiko korridorean **barandaren garaiera 1,10 metroraino handituko da**.

Eskaileraren eremuak erreparasatuko dira eta **esmalte sintetiko**zko **bi geruzaz** margotuko dira; halaber, baldosa ipini aurretik, **iragazgaizte elastikoa** jarriko da goiko tranpalean, eskailera-buruetan eta mailetan, oxidatzea eragozteko.

## **OLABEAGA KAIKO 36KO ESKAILERAK**

Bi eskailera-tartek Olabeaga kaia, 36 zenbakiaren parean, eta San Nikolas kalea, 29 zenbakiko atariaren inguruan, lotzen dituzte.

Alde horretan honako lan hauek egingo dira: **maila guztiak granitozko batzuez ordeztuko dira, eta eskailera-buruetan, dagoen zoladuraren orde, baldosazkoa jarriko da; azkenik, norabidezko baldosa ipiniko da sarbideetan**.

Horrez gain, **dagoen eskudelaren ordeztu altzairu herdoilgaitzezko eskudela bikoitza jarriko da, eta hormigoizko balaustrada garbituko da**.

## **URGOZO KALEKO APARKALEKUKO ITXITURA**

Bihurdura soileko sareko itxitura batek Urgozo kaleko aparkalekua eta trenbidearen lurrak bereizten ditu. Itxituraren zati batzuk erorita daude, alde horretan baterian aparkatzen duten autoek bultzatuta, zintarritik gertu dagoelako.

Horregatik, **ezaugarri bereko beste itxitura bat jarriko da, baina aparkalekua mugatzen duen zintarritik metro eta erdi bereizita**, ibilgailuek uki dezaten eragozteko. Guztira, **2 metroko garaierako 360 metro lineal**.

Itxiturako oinezko eta ibilgailuentzako ateak gaur egun dauden toki berean egongo dira.

## **AUZOKIDE-PLANA**

Olabeaga auzorako aurreikusitako lanak hiriko auzoak hobetzeko **Auzokide Planaren** barruan sartzen dira.

Bilboko Udalak herritarren parte-hartzerako daukan tresnarik garrantzitsuenetako bat da hori. Horren bitartez, aurrekontuaren bidezko banaketa egiten da Bilboko 8 barrutien artean; hau da, **1,5 milioi euro barruti eta urte bakoitzeko**.

## **SARE SOZIALAK**

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

## EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO INICIA UNA SERIE DE OBRAS DE MEJORA DE ACCESIBILIDAD Y ALUMBRADO EN EL BARRIO DE OLABEAGA

- Se contemplan actuaciones en distintas tramadas de escaleras, como las de acceso a la calle Dique, las situadas entre esta vía y el Camino de la Ventosa, las de Trokabidea, las situadas en Muelle de Olabeaga 36, o las metálicas en la trasera de Muelle de Olabeaga 22.
- También se intervendrá en el aparcamiento de la calle Urgozo.
- A estos trabajos, que arrancan esta semana y cuentan con un plazo de ejecución de seis meses, se destinará un presupuesto de 435.321,31 euros.
- Son obras que se enmarcan dentro del Plan Auzokide y por tanto han sido priorizados por las y los vecinos del Distrito 8.

(Bilbao, 16 de mayo de 2022).- El Ayuntamiento de Bilbao inicia esta semana una serie de trabajos que se incluyen dentro del Plan de Mejoras del Barrio de Olabeaga. Obras que se ejecutarán en diferentes puntos y que consisten fundamentalmente en la mejora de la vialidad peatonal en este entorno y se centrarán, en su mayoría, en distintas tramadas de escaleras.

Son **seis actuaciones en total** en otras tantas localizaciones que cuentan con un presupuesto de **435.321,31 euros** y se desarrollarán en los próximos **seis meses**.

### ESCALERAS DE ACCESO A LA CALLE DIQUE

**El acceso a la calle Dique desde la acera del Muelle de Olabeaga se solventa a través de unas escaleras y una rampa**, cuya barandilla no cumple con los parámetros de accesibilidad ni de protección de desniveles.

Esa **barandilla será sustituida por otra con protección de desniveles y doble pasamanos de acero inoxidable y acorde a los parámetros de accesibilidad**.

Además **se abordará la limpieza del pavimento del acceso y del muro** que presentan verdín y desperfectos ocasionados por la humedad. El paramento del muro se tratará con una capa de mortero.

### ESCALERAS Y PASARELA ENTRE LA CALLE DIQUE Y EL CAMINO DE LA VENTOSA

Al final de la **calle Dique**, a la altura del número 10, arrancan unas **escaleras que suben hasta el Camino de la Ventosa** y que atraviesan las antiguas vías del ferrocarril mediante una **pasarela**. Este itinerario peatonal es un paso estrecho, cuyos escalones, cierres y barandillas presentan desperfectos y el alumbrado resulta insuficiente.

Los tramos de escalera no se podrán ensanchar ya que no hay espacio público disponible. **Sí se mejorará la pavimentación de hormigón en las escaleras** con una capa de mortero impreso, **tanto en los escalones como en los descansillos y pasarela.**

**Se eliminarán todas las barandillas y el cierre metálico**, que carece de sentido ya que ya no hay circulación de trenes bajo la pasarela. En la actualidad las vías no están en uso y el terreno ha sido cedido por ADIF al Ayuntamiento.

En el tramo superior se habilitará un **bordillo de jardín para delimitar con los taludes laterales** y se colocará **pasamanos doble y barandilla de protección de acero inoxidable** a ambos lados en toda la longitud del tramo. En los accesos a las escaleras se colocará banda de baldosa direccional de color rojo.

Y se sustituirá la **luminaria** existente por otra con sistema **LED** y se instalará **un nuevo punto de luz de las mismas características en la parte superior de las escaleras.**

## **ESCALERAS TROKABIDEA**

Las escaleras de la calle Trokabidea se suceden en dos tramos, el primero conecta el Muelle de Olabeaga –a la altura del número 3– con la calle Dique y el segundo continúa hasta las la pasarela sobre las vías. Estas escaleras discurren confinadas entre muros por lo que **no hay posibilidad de ampliación.**

**Lo que se plantea es rehacerlas, adaptando los peldaños en dimensiones y número para cumplir la normativa de accesibilidad**, esto es, peldaños de 35x15 centímetros, para lo que es necesario retranquear algunos y añadir otros nuevos, modificando los tramos de escaleras y manteniendo el descansillo de encuentro con la calle Dique.

**Los peldaños serán de granito y se colocará también baldosa de granito en los descansillos y encuentros.** Se eliminarán las guías laterales y **se colocará doble pasamanos a ambos lados de las escaleras.**

Asimismo se incluirán **baldas de baldosa direccional en los accesos** a las escaleras y **se renovará el alumbrado, un tramo de la red de aguas y la recogida de pluviales.**

## **ESTRUCTURA METÁLICA DE LAS ESCALERAS DE LA TRASERA DE MUELLE DE OLABEAGA 22**

En la trasera del número 22 de Muelle de Olabeaga existen unas escaleras sobre estructura metálica que conectan –mediante una pasarela en la parte superior– con la calle San Nicolás. Presentan oxidación en su estructura y deterioro en su pavimento de canto rodado.

**Se procederá a cambiar todo el pavimento en los peldaños y la pasarela, sustituyéndolo por baldosa de granito y, además, se saneará y reparará la estructura**

**metálica.** Estructura que **se reforzará por medio de pilares y se recrecerá la barandilla** en el pasillo superior hasta una altura de 1,10 metros.

Se repasarán las distintas zonas de la escalera, se pintará con **dos manos de esmalte sintético** y se dotará de **impermeabilización elástica** a la meseta superior, descansillos y peldaños para evitar su oxidación antes de colocar la baldosa.

## **ESCALERAS DE MUELLE DE OLABEAGA 36**

Dos tramadas de escaleras comunican el Muelle de Olabeaga, a la altura del número 36, con la calle San Nicolás, en torno al portal 29.

Los trabajos que se realizarán aquí consistirán en **la sustitución de todos los peldaños por otros de granito y del pavimento de descansillos por baldosa; y baldosa direccional en los accesos.**

También **se cambiará el pasamanos existente por doble pasamanos de acero inoxidable y se limpiará la balaustrada de hormigón.**

## **CIERRE EN EL APARCAMIENTO DE LA CALLE URGOZO**

Un cierre de malla de simple torsión separa el aparcamiento de la calle Urgozo de los terrenos de las vías del tren. Partes del mismo se encuentran caídas a consecuencia del empuje de los coches que aparcan en batería en ese lado, dada su cercanía al bordillo.

Es por ello que **se colocará un nuevo cierre de las mismas características pero separado metro y medio del bordillo que limita el aparcamiento,** para evitar el contacto con los vehículos. En total, **360 metros lineales de 2 metros de altura.**

El cerramiento constará de puerta de peatones y vehículos en la misma localización que las actuales.

## **AUZOKIDE PLANA**

Los trabajos previstos para el barrio de Olabeaga se enmarcan en el **Plan Auzokide** para la mejora de los barrios de la ciudad.

Ésta es una de las herramientas más importantes de participación ciudadana con la que cuenta el Ayuntamiento de Bilbao. En virtud de la cual, el presupuesto es repartido por igual entre los 8 distritos de Bilbao, **a razón de 1,5 millones de euros por distrito y año.**

## **REDES SOCIALES**

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)